

2026KO SESTAOKO INAUTERIKO ELKARTE PARTAIDEEI LAGUNTZAK ETA SARIAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

LEHENENGOA.-

DEIALDIAREN XEDEA

Sestaoko Udalak, Kultura Sailaren bidez, arauak zehazten ditu inauteriko taldeei laguntza ekonomikoak eta sariak emateko, baldin eta **2026ko OTSAILAREN 21eko** ekitaldietan (**Inauteriko Desfilea**) parte hartzen badute.

Oinarrien xedea da taldeen, elkarten, konpartsen eta lagunarteen partaidetza sustatzea Sestaon 2026ko inauteriaren barruan programatuta dauden ekitaldietan, bai eta kultura hurbiltzea herritarrei ikuspuntu guztietatik ere, aisiaz gozatzea bultzatuz eta herritarren partaidetza-prozesua sustatuz.

Udal-aurrekontuan guztira 10.260 euroko kreditua bideratu da laguntzetarako eta sarietarako, eta 3380-22606 partidari egotziko zaio.

Laguntzak eta sariak emateko egiaztatuko da deitutako kategorietan parte hartzen dutela eta oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela. Eskaera-kopuruen baitan, zuzkidura ekonomikoak aipatutako muga hori gainditzen badu, Udalak ahalmena gordetzen du laguntza kreditu eskuragarria egokitzeko eta partaide guztien artean hainbanaketa egiteko, betiere ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

BIGARRENA.-

LEGEZKO OINARRIAK ETA APLIKAZIO-EREMUA

Oinarri hauen eta deialdiaren legezko oinarria da Sestaoko Udalen dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor Arautzaileak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO) xedatutakoa.

Oinarri hauek Sestao udalerrri osoan aplikatuko dira, eta lehiaketan parte hartzen duten pertsona fisikoek edo juridikoek aintzat hartu beharko dituzte.

HIRUGARRENA.-

ONURADUNAK

Legez eratutako elkarteak edo erakundeak, bai eta behin-behinean ala aldi baterako osatutako taldeak ere, baldin eta oinarri hauen baldintzak betetzen badituzte. Azkeneko kasuan baino ez, ezinbestez izendatuko da ordezkari bat taldearen izenean jarduteko ahalarekin. Ordezkari horrek hartzekodunaren fitxa erantsiko du (III. ERANSKINA) eta hartzekodunen gainerako fitxak behin-behineko taldean parte hartzen duten pertsonen arabera. (2-13 kideren talde txikia eta 14 kideetik aurrerakoien talde handia).

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak arautzen dituen dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile ezingo dira izan DLOren 13.2. artikuluan aurrez ikusitako inguruabarren bat duten pertsonak edo erakundeak.

Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartzeko, erakunde eskatzaileek

eguneratuta izango dituzte zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzari dagokionak eta Sestaoko Udalari ordaindu behar zaizkionak. Eskakizun hori eskaerak aurkezten direnean beteko da, eta indarrean egongo da dirulaguntzaren prozesu guztian zehar (ematea, betebeharra aitortzea eta ordaintzea).

LAUGARRENA.-

ESKAKIZUN OSAGARRIAK

Onuradunek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- Hemezortzi urtetik gorakoak izatea.
- Zerga-betebeharrak eguneratuak izatea.
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekin ordainketak eguneratuak izatea.
- Sestaoko Udalarekin ordainketak eguneratuak izatea.
- Behin-behineko taldeen kasuan, hartzekodunen 6 fitxa aurkeztea taldean parte hartzen duten pertsonen dagokienez.
- Banku-kontuko titularra izatea saria sartzeko edo behin-behineko taldeen kasuan, sariaren zati proportzionala ordaintzeko.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, dirulaguntzak lortzeko debekurik ez izatea.
- Sexuagatiko diskriminazioarengatik administrazio-zigorrik edo zigor penalik ez jaso izana eta dirulaguntzen edo laguntzen deialdian parte hartzeko debekuarekin ez zehatu izana Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoaren arabera.
- Ibilgailua erabiliz gero, su-itzalgailua, IAT eta aseguru indarrean izatea.
- Sorgailua eramanez gero, su-itzalgailua izatea.

BOSGARRENA.-

LAGUNTZAK / SARIAK ESKURATZEKO BALDINTZAK

Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dira:

4.1.- Prozeduran parte hartzeko eskaera eta dagozkion eranskinak UDAL ERREGISTROAN aurkeztea, atal guztiak behar bezala osatuta eta talde partaidearen ordezkariak **sinatuta**.

4.2.- Inauteriko konpartsa txikiaren saria lortu nahi izanez gero, taldeek 2-13 kide izan beharko dituzte.

4.2.- Inauteriko konpartsa handiaren laguntzak eta saria lortu nahi izanez gero, 13 kideetik gora izan beharko dituzte.

4.4.- Taldeko kide guztiek inauteriko berezko jantziak jantziko dituzte gutxieneko kalitate artistikoarekin, eta hautatutako inauteriko gaia kontuan hartuta, jantziak berdinak edo gaian txertatutakoak izango dira.

4.5.- Taldeek oso-osorik eta eraginkortasunez parte hartuko dute **2026ko OTSAILAREN 21ean** programatutako ekitaldietan (Inauterietako Desfilea).

Desfilean, taldea argi eta garbi identifikatuko da eskuratutako taulatxoan esleitutako zenbakiarekin.

4.6.- Taldeak tramankulu edo gailuren bat badarama, une oro zainduko du partaideen eta bertaratutako jendearen segurtasuna, eta debekatuta dago edozein material pirotekniko erabiltzea.

4.7.- Erakunde partaideek antolakuntzaren, Udaltzaingoaren eta babes zibilaren jarraibideei erreparatuko diete ibilbide guztian zehar.

4.8.- Erakunde partaideek ez dute eduki eta jarrera sexistarik izango.

SEIGARRENA.-

INAUTERIKO DESFILEA ETA PARTAIDETZA-EREDUAK

Sestaoko Inauteriko Desfilea 2026ko otsailaren 21ean (larunbata) egingo da, eta 18:30ean hasiko da. Aurretik taldearen identifikazio-zenbakia duten taulatxoak jasoko dira Castaños eraikinean, 17:00etatik 18:00etara, eta azalduko zaien non jarri desfilean.

Desfilean parte hartu nahi duen edozein elkarteak inauteriko sariak eskuratzeko, parte hartzeko eskaera formalizatu beharko du 7.3 oinarriko eranskinak betez.

Talde partaideen irteera-hurrenkera Kultura Sailak zehaztuko du behar bezala koordinatzeko, besteak beste, honako hauek kontuan hartuta: talde bakoitzeko kide kopurua, jantziaren kolorea, tramankulua.

Desfilean ez dira utziko etenaldiak abiada moteltzeko.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia osatuko dute lehendakariak (Kulturako zinegotzi ordezkaria edo hura ordeztzen duen zinegotzia), Jai Batzordeko bi mahaikidek, Merkataritzen Elkarteko mahaikide batek, Udalaz kanpo bi mahaikidek irizpide artistikoarekin eta, gutxienez, Udaleko zinegotzi batek.

Epaimahairen erabakia erantzunezina izango da, eta hartara iristeko honako irizpide hauek kontuan izango ditu: jantzien/tramankuluaren originaltasuna, elaborazioa edo konplexutasuna, gaia eta koreografia. Gaia egunerokoaren izaera satirikoaren arabera baloratuko da.

Parte hartzeko bi eredu daude:

6.1.- Inauterian talde txikian parte hartzea.

6.2.- Inauterian talde handian parte hartzea.

Ondoren, mota bakoitzean parte hartzeko eskakizunak zehazten dira:

6.1.- TALDE TXIKIAK

Hala parte hartzeko, 4.2 oinarrian ezarritakoa beteko da, eta izena 7. oinarrian xedatutakoaren arabera emango da.

Talde txikiek talde txikien sariak bakarrik lortu ahalko dituzte, epaimahaiak modu horretan zehaztuta.

Sari guztiak jendaurreko ekitaldi batean entregatuko dira inauteriko desfilea amaitzen denean.

❖ **KONPARTSA TXIKIEN INAUTERIKO MOZORROA** (sariak guztira: 1.400 euro)
(2-13 kide)

Lehenengo saria:	500 euroko diploma
Bigarren saria:	400 euroko diploma
Hirugarren saria:	300 euroko diploma
Laugarren saria:	200 euroko diploma

6.2.- TALDE HANDIAK

Hala parte hartzeko, 4.3 oinarrian ezarritakoa beteko da, eta izena 7. oinarrian xedatutakoaren arabera emango da.

Talde handiek lortu ahalko dituzte talde handien sariak, epaimahaiak zehaztutakoak, eta parte-hartzagatiko dietak.

A.-) SARIAK

Sariak banku-transferentziaren bidez ordainduko dira eskakizunak bete direla egiaztatu ondoren.

❖ **KONPARTSA HANDIEN INAUTERIKO MOZORROA** (sariak guztira: 7.900 euro)
(Gutxienez 14 kide)

Lehenengo saria:	1.200 euroko diploma
Bigarren saria:	1.100 euroko diploma
Hirugarren saria:	1.000 euroko diploma
Laugarren saria:	900 euroko diploma
Bosgarren saria:	800 euroko diploma

Seigarren saria:	700 euroko diploma
Zazpigarren saria:	600 euroko diploma
Zortzigarren saria:	500 euroko diploma
Bederatzigarren saria:	400 euroko diploma
Hamargarren saria:	300 euroko diploma
Hamaikagarren saria:	250 euroko diploma
Hamabigarren saria:	150 euroko diploma

Gainera, bi sari berezi daude: udalerriko ostalariek emandakoa, aldakorra biltzen duten diruaren arabera; eta Merkatarien Elkartek emandakoa, 1.500 eurokoa erosketa-txarteletan, elkarteko establezimenduetan erosteko. Bi sariak epaimahaiaren erabakia argitaratu eta sarituak izendatzen direnean entregatuko dira.

B.-) DIETAK

Talde handiek parte hartu, baina **sarituak izan ez direnean**, parte-hartzeagatiko dieta jaso ahalko dute.

Parte-hartzeagatiko dieta 80 eurokoa izango da talde partaide bakoitzeko, eta ordezkariak emandako kontuan ordainduko da.

Dieta Kulturako zinegotziaren ebazpenez emango da, Arloko animatzaile soziokulturalak txostena egin ostean.

Laguntza ekonomiko hauetarako gehienez 960 euro daude kontsignatuta, eta partaidetza handia dela eta, talde bakoitzari eman behar zaion zenbatekoa nahikoa ez bada, indize zuzentzaile bat definituko da zenbatekoa sarituak izan ez diren talde handi partaide guztien artean banatu ahal izateko.

ZAZPIGARRENA.-

IZEN-EMATEA ETA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

7.1- Izena emateko epea 2026ko otsailaren 16tik 19ra bitartekoa izango da.

7.2- Parte hartzeko eskaera eta eranskinak Sestaoko Udalean eta Sestaoko Udalaren webgunean (www.sestao.eus) daude eskuragarri.

7.3.- Prozeduran izena emateko **eskaerak** aurkeztu ahalko dira **aurrez aurre Sestaoko Udalaren erregistroan** (ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara) **edo Sestaoko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.**

Eskaera ereduaren arabera egingo da.

Izena eraginkortasunez emateko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Sestaoko 2026ko Inauteriko laguntzak eta/edo sariak emateko prozeduran parte hartzeko **ESKAERA**.

- **II. ERANSKINA:** Konpartsako 6 kideren izenak
- **III. ERANSKINA:** Tramankuluaren eta/edo soinu-ekipamenduaren deskribapena. *Ezinbestez bete beharko da eranskin hau desfilean parte hartu ahal izateko ibilgailuarekin, soinu-ekipamenduekin edo sorgailua duen edozein elementurekin.*
- **III. ERANSKINA:** Banku-helbideratzea.

ZORTZIGARRENA.-

LEHIAKETAREN DEIALDIA

Lehiaketaren deialdia baliabide egokiak erabilita egingo da behar bezala zabaltzeko eta gehieneko partaidetza sustatzeko. Udaleko iragarkien taulan argitaratuko da, bai eta webgunean eta kartelen bidez, iragarkia komunikabideetan argitaratuz, etab. ere.

BEDERATZIGARRENA.-

OINARRIAK ONESTEA

Laguntzetarako eta sarien lehiaketarako izena ematean ulertuko da OINARRIAK ezagutu eta onesten direla.

Parte hartzeko inprimakian erantzukizunpeko adierazpenerako atal bat dago, DLOren 13.2 artikulua xedatutakoaren arabera, onuradun izateko debekurik ez dela aipatzeko, eta finantza eta administrazioaren arloan egiaztapen- eta kontrol-jarduketak onartzeko.

DLOren 37.1 artikulua hizpatutakoari jarraikiz, dirulaguntza itzultzeko arrazoi bat da diruz lagundutako taldeek emandako dirulaguntzaren ondoriozko eskakizunak eta konpromisoak ez betetzea. Kasu horietan, jasotako zenbatekoak itzultzea eskatu ahalko da, eta taldeetako arduradunek urtebetez galduko dute halako dirulaguntzak jasotzeko eskubidea.

Antolakuntzak funtzionamendu onerako halabeharrezko aldaketak sartzeko eskubidea gordetzen du, egokitzen iruditzen bazaio. Gainera, edozein kasu ebatzi ahalko du, oinarri hauek aurrez ikusten ez badute.

HAMARGARRENA.-

DATUAK BABESTEA

Tratamenduaren arduraduna

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalak tratatzeko eta datu horien zirkulazio askerako pertsona fisikoak babesteari buruzkoak, eta 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzen dituenak, xedatutako aginduak betetzeko, Sestaoko Udala da dirulaguntzen deialdi hau izapidetzeko jasotako datu pertsonalak tratatzeaz arduraduna.

Tratamenduaren helburua

Tratamenduaren helburua da taldeen, elkarten, konpartsen eta lagunarten partaidetza sustatzea eta herritarrei hurbiltzea kultura ikuspegi guztietatik, aisiaz gozatzea sustatuz eta herritarren parte-hartze prozesua bultzatuz.

Tratamenduaren legitimazioa eta oinarri juridikoak

Datu pertsonalak tratatuko dira Udalari emandako botere publikoetan funtsatuta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 7ko 7/1985 Legearen 25. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (aurrerantzean, ETEL) 17. artikulua xedatutakoaren arabera.

Tratamendua eusten duen oinarri juridikoa DLOk, Dirulaguntzen Lege Orokorrari buruzko Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak emateko Udal Ordenantza arautzaileak aurrez ikusten dute.

Datuen bitartekaritza

Sestaoko Udalak, legez esleituta dituen eskumenak erabiliz, beste administrazio batzuetako dokumentuak elektronikoki kontsulta edo jaso ditzake, interesdunak kontra egiten duenean izan ezik. Hala eta guztiz ere, Udalak bere egiaztapen-eta/edo kontrol-funtzioa erabili ahal izango du, eta edozein dokumentu lortuko du, legez agindutako prozedurak izapidetu, kudeatu eta ebazteko beharrezkoak badira.

Publizitatea

Sestaoko Udalak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari (aurrerantzean, DDBN) bidaliko dio honako informazio hau deialdia onetsi ostean: oinarriak, aurrekontuko kreditua eta programa eta xedea edo helburua. Gero, deialdia ebatzitakoan, Udalak jakinaraziko ditu onuradunen zerrenda, emandako zenbatekoa eta egiaz jasotakoa, baita, bidezkoa bada, itzuli eta zehatzeko ebazpenak ere.

DDBNri bidalitako informazioa edozein pertsonak eta/edo administrazioek kontsultatu ahal izango du, DLOren helburua baita gardentasuna eta iruzurraren aurkako borroka sustatzea.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2012 Legeak nahiz ETELk xedatutakoarekin bat etorritik, udalbatzek emandako dirulaguntzen eta/edo laguntzen zenbateko, helburu edo xede eta onuradunei buruzko datuak Udaleko webgunean eta "Sestao Zabaltzen" Gardentasun Atarian argitaratuko dira.

Erabaki automatizatua

Dirulaguntzen eskatzaileen datu pertsonalek ez dute tratamendu automatizatua izango; hala eta guztiz ere, Sestaoko Udaleko erregistroari, espedienteen kudeatzaileari, kontabilitate-sistemari eta, beharrezkoa izanez gero, ahalduzkoen erregistro elektronikoki erantsiko zaizkie. Sartzearen helburua da deitutako dirulaguntzak izapidetu eta kudeatzea.

Datuen jatorria

Datu pertsonalak interesdunek emango dituzte; dena den, Udalak, horrek kontra egiten ez badu, beste herri-administrazio batzuetako dokumentuak lortu ahal izango ditu, horien jatorria interesduna bada.

Datuen hartzaileak

Tratatutako datu pertsonalak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio.

Datuak babestearen arloan eskubideak eta erreklamatzeko bitartekoak

Interesdunak atzitzearen, zuzentzearen, ezabatzearen, kontra egitearen, eramatearen eta mugatzearen eskubideak baliatu ahal izango ditu Sestaoko Udaleko udal-erregistroan (Kasko plaza z.g., 48910 Sestao (Bizkaia)), Sestaoko Udaleko egoitza elektronikoa (<http://www.sestao.eus/es-ES/Tramites/Paginas/procedimiento-detalle.aspx?id=593bdec5-c9ac-e211-b9d8-0237d32158c>) edo administrazio publikoen erregistro-arloko laguntza-bulegoetan.

Modu berean, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari (Tomás Zumarraga Dohatsuaren kaleko 71. zenbakia, 3, 01008 Gasteiz (Araba)) erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio.

Tratatutako datu pertsonalen maila

Sestaoko Udalak, deialdi honetako eskakizunak egiaztatzeko, honako datu-maila hauek tratatuko ditu:

☒	Oinarrizko datuak: izen-abizenak.
☒	Identifikazio-datuak: NANA/AIZa.
☒	Ordezkaritza-datuak: Ahalorde-emailearen eta -hartzailearen izen-abizenak, NANA/AIZa eta ordezkari-tza-ahalordea (notarioarena, apud acta...)
☒	Jardueraren datuak: ogasun publiko eskudunarekin ordainketak eguneratuak izatea, bai eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin eta Sestaoko Udalarekin ere; dirulaguntzak lortzeko eskubidea galdu ez izana ebazpen irmoaren bidez; debekurik ez izatea dirulaguntzaren onuradun izateko; zehapen penalik edo administrazio-zehapenik ez jaso izana sexuagatiko diskriminatzeagatik eta dirulaguntzen deialdietan parte hartzeko debekuaren bidez zehatu ez izana Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoaren arabera.
☒	Bankuko datuak: hartzekodunaren fitxa.